

# 200 lanpostu gutxiago EITBn

## AURKIBIDEA

1. Sarrera
  - 1.1. Zer da EITB?
  - 1.2. EITB taldea osatzen duten enpresak
  - 1.3. EITBren ordezkariak sindikala
  - 1.4. EITBren zuzendaritza organoak
2. Informazio-politika. Neutraltasunik, aniztasunik eta gizarte-partaidetzarik eza
3. Murrizketa-politika
  - 3.1. Ondorio larriak EITBko aurrekontuetan
  - 3.2. Ondorio larriak langileentzat
4. Eusko Irratiaren Administrazio Kontseiluaren akordioa, 30 lanpostu suntsitzeko.
5. Ondorioak
6. ELAren proposamenak

## 1. SARRERA

### 1.1- Zer da EITB?

EITB taldea (Euskal Irrati Telebista) euskal irrati-telebista publikoa da. Zuzenbide pribatuko ente publikoa da, %100ean kapital publikokoa, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren menpekoa. Eusko Jaurlaritzak 1982an sortu zuen 5/1982 Legearen bidez.

### 1.2- EITB taldea osatzen duten enpresak

- a) Euskal Irrati Telebista ente publikoa: Enpresa nagusia da, eta zerbitzu komunak bere gain hartzen ditu.
- b) Euskal Telebista: telebista ekoizteko eta emititzeko enpresa da (etb-1, etb-2, etb-3, etb-sat).
- c) Eusko Irratia: Irratsaioak ekoizteko eta emititzeko enpresa da (radio euskadi, euskadi irratia, euskadi gaztea, radio vitoria, Eitb radio).
- e) EITBNET: saioak interneten zabaltzen eta web-orriak sortzen aritzen den enpresa da.

Gobernuek erabaki dute krisia kudeatzeko finantza-kapitalen eta enpresa handien exijentzietan men egitea. Botere ekonomikoek - zeinak kontrol demokratikorik funtsezkoenak saihesten dituzten- eurek eragindako krisiaren kostua bete-betean langile-klaseak ordain dezala exijitzen dute. Eta botere politikoa prest dago bizi- eta lan-baldintzak murrizteko eta urte askoren buruan lortutako eskubide laboral eta sozialak ahultzeko.

### 1.3- EITBren ordezkariak sindikala:

EITB ko ordezkariak sindikala 54 ordezkari osatzen dute:

ELA	LAB	ESK	KLB	CCOO	GUZTIRA
28	16	4	3	3	54

ELA da lehen indarra 28 ordezkariarekin.

### 1.4- EITBren zuzendaritza-organak

EITB taldearen zuzendaritza-organak Administrazio Kontseilua eta zuzendari nagusia dira.

Eusko Legebiltzarrak izendatzen ditu Administrazio Kontseiluko 19 kideak eta zuzendari nagusia.

Eginkizunak, besteak beste, hurrengo hauek dira:

- a) Jarduera-plana onestea. Plan horretan oinarritzko printzipioak eta programazioaren ildo nagusiak jasotzen dira.
- b) EITBren plantillak onestea.
- c) Negoziazio kolektiborako eta pertsonalaren lansarietarako irizpide orokorrak ezartzea.
- d) Jaurlaritzak ente publikorako egiten duen aurrekontu-proposamena onestea.

Administrazio Kontseiluaren gaur egungo osaera hauxe da:

**EAJ/PNV:** 6 kide, **EH-BILDU:** 4 kide, **PSE-EE:** 3 kide, **PP:** 2 kide, **LAB:** kide 1, **Euskaltzaindia:** kide 1, **EKA-OCU:** kide 1, eta **Eusko Ikaskuntza:** kide 1.

**Zuzendari nagusia:** Maite Iturbe.

Administrazio Kontseiluko postuen banaketa Legebiltzarrean adostu da, alderdien arteko interesen edo akordioen bidez. Administrazio Kontseiluan dagoen ordezkariak sindikalaren arrazoia ez da sindikatuen arteko akordio bat edo sindikatuen ordezkariak mailaren arabera, Legebiltzarrean erabakitzen da. Sindikatu nagusiak Administrazio Kontseilurako izendatzen duen hautagaiari uko egin diote sistematikoki, akordio edo interes alderdikoiengatik, azken lau legegintzaldiotan.

## 2. INFORMAZIO-POLITIKA. NEUTRALITASUNIK, ANIZTASUNIK ETA GIZARTE-PARTAIDETZARIK EZA

ELA kezkaturik dago, EITBren printzipio orokorrak —5/1982 Legearen 3. artikuluan jasotakoak— gero eta erlatibotasun handiagoz interpretatzen baitira. Objektibotasuna, pluraltasunarekiko begirunea eta informazioa ematean gorde beharreko inpartzialtasuna zalantzatan jarri dira EITBren Zuzendaritzaren informazio-politikaren ondorioz.

Ikusi besterik ez dago zenbateko leku ematen dien ente publikoak gizarte eta lan arloetako eztabaidei (Kutxabank, zorra, banka, soldaten balio-gutxitzea...)

Bestalde, aipatu beharrekoa da zein gaizki tratatzen diren ikuspuntu sozial eta sindikalak, alderatzen baditugu, behintzat, enpresarien, politikarien edo finantzen munduak beren mezuak zabaltzeko dituzten erraztasunekin. Halaber, salatu beharrekoa da nola baliatzen diren enteaz gobernuaren diskurtso instituzionala zabaltzeko, eta politika horiei alternatibak planteatu nahi ditugun organizazioak ezkutatzeko. Onartezina da ente publiko batetik desinformazioa eta ezjakintasuna sustatzea.

Horrela, eztabaida politiko eta soziala bera ere hutsaldu da, zeren eztabaiden ordezkariak sartu dituzte, eta herritarrek informazio zuzenik, zorrotzik eta anitzik gabe utzi dituzte.

Irrati eta telebistan erakunde sindikalen presentzia erabakitzeko irizpideak erabat arbitrarioak dira.

Bestalde, ELAk salatzen du EITBn ez dagoela partaidetza-organorik. Izan ere, horrelako organo bat oso baliagarria izango zen, taldeari ekarpenik, iradokizunik edo kexarik

helarazi ahal izanez gero, eta baita berme-tresna gisa ere, baliabide publiko baten kudeaketa demokratikoan pluraltasuna eta gardentasuna ziurtatze aldera. Beste telebista publiko batzuek horrelako partaidetza-tresnak badituzte.

ELAk apustu egiten du balio demokratikoetan oinarrituriko jendartearekin guztiz engaiaturiko EITB plural baten alde. Sindikatu honen iritziaz informazio-politika berraztertze beharra ezin da gehiago atzeratu. Herri honetako pluraltasuna, arlo sozialean ere bai, errespetatzen duen informazioa jasotzeko eskubidea bermatu behar da lehenbailehen.

## 3.- MURRIZKETA-POLITIKA

### 3.1- Eusko Jaurlaritzak azken urteotan aurrekontuak murrizteko eraman duen politikak ondorio larriak ekarri dizkio EITBren aurrekontuari

EITBrako aurrekontuen diru-saila, Eusko Jaurlaritzak ematen duen aurrekontu-legearen arabera, %35 murriztu da azken bosturtekoan. 2009. urteko 190 milioietatik 2014. urteko 121 milioietara.

Horrekin batera EITBren beste diru-sarrera ere, publizitatearena, nabarmen jaitsi da.

Aurrekontu-murrizketa horrek, lan-ondorio larriak izateaz gain, zerbitzu publiko horren kalitatea ere kaltetu du. Programazioa aldatu behar izan da pertsonalaren eskasiagatik, zuzeneko programazio-orduak gutxitu... Hori dela-eta, ekoizpenen kalitatea lorrindu da, material eta pertsonal gutxiegi izateagatik, eta kolaboratzaileetan murrizketa izugarria egiteagatik.

### 3.2- Aurrekontu-murrizketaren ondorioak EITBko langileen-tzat: enplegu-galera eta baldintza sozio-laboralen jaitsiera

#### 3.2.1. Enplegua

##### a) Kontratazioa

5/1982 Legearen 47.2 artikulua dio pertsonalaren kontratazioa deialdi ireki bidez eta merezimendu eta gaitasun printzipioak oinarri hartzen dituzten sistemei jarraiki egingo direla. Errealitatea, hala ere, oso bestelakoa da. Kontratazio irregularra beti gertatu den zerbait izan da EITBn. Hona hemen erabili diren aukerak:

- **Konfiantzako karguen izendapenak (nahieran).** Kudeatzaileak edo zuzendariak, oraindik ere, 75etik gora dira. Egoera irregular hori aldiro-aldiro salatu izan du sindikatu honek, eta baita Herri Kontuen Epaitegiak ere.
- **Merkataritza-kontratazioak, artisten kontratuak eta lan-legepeko kontratuak.** Ohiko formulak izan dira, EITBko egitura-beharrizanak modu irregularrean betetzeko.

**Merkataritza-kontratuak:** Lan Ikuskaritzak obra-kontratuak irregularizat jo zituen, 2003. urtetik aurrera (EITBko zuzendari Andoni Ortuzar zan garaian) merkataritza-kontratuak egiten hasi ziren.

Merkataritza-kontratu horiek EITBren kontratazio-jarraibideak bete gabe egin ziren, obra-kontratuak ordeztuko. Lan Ikuskaritzak, 2010. urteko auto batez, ebatzi zuen lege-iruzurrean egin zirela, eta beraz EITBko Zuzendaritza behartu zuen kontratuak erregularizatzea, eta kontratu mugagabe ez-finkoak bihurtzea (kontratu-mota horretan kontratua mugagabea da, postu horretarako EPE bat ateratzen ez den bitartean). Iruzurrezko merkataritza-kontratuak erregularizatzeagatik bakarrik 4tik gora milioi euro ordaindu behar izan zaio Gizarte Segurantzari. Administrazio Kontseiluak lanpostu horietatik 30 amortizatzeako harturiko akordioak praktika irregular horietan du jatorria, eta ahal den modurik txarrean amaitu da, lanpostuak amortizatuz, alegia. Akordio horren zehaztapenak aurrerago emango ditugu jakitera.

**Lan-legepeko kontratuak:** Legez kontrako lan-legepeko kontratuetatik datozen kaleratzeengatik kalte-ordainak eman behar izan ditu sarri askotan Zuzendaritzak, lan-arloko epaitegien eta EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak betetzearren.

- **EITBren berezko zerbitzuak azpikontratzea:** Azpikontrata eta ekoiztetxeak.

Berezko zerbitzuak azpikontratzearen ondorioz (garbikuntza, segurtasuna, publizitatea, informatika-garapena, administrazioa, jantziteria, makillajea eta ile-apainketa, ENG, erabiltzaileei arreta, eta abar), gaur egun 200etik gora langile azpikontrataturik daude, EITBren berezko zerbitzuak egiteko.

Orain, programazioaren zati bat ekoiztetxeen bitartez egiten da. Ekoiztetxe horiek, EITB taldearen giza baliabideak eta materialak modu irregularrean erabiliz, EITBren programak egiten dituzte, hala nola Ni+ ni-, EH zuzenean edo El conquis. Programa horiek taldearen beraren baliabideez —teknikoak eta langileenak— egin litezke.

## b) EITBren plantillaren bilakaera

### Eusko Irratia:

\* Merkataritza kontratuak

Enplegu Publikoaren Eskaintzaren (EPE) ondotik plantillak 252 langile izango ditul.

	2009	2014	2014 EPE ostean
Radio Vitoria	53 (45+8*)	42	40
Radio Euskadi	144 (86+58*)	121	100
Euskadi Irratia	151 (102+49*)	121	112
Guztira	348	284	252

### ETB:

	2010	2014
Bilboko plantilla:	523	448
Miramongo plantilla:	188	160

### Entea:

2010. urtetik 2014. urtera 6 plaza amortizatu dira. Entearen 2014ko plantilla: 79 langile. 79 langileko plantilla horretatik 10 langilek %10eko soldata eta lanaldi murrizketa dute.

### ETB NET:

21 langileko plantilla du.

### EITB plantilla:

Horren guztiaren ondorioz EITBko oraingo plantillak 992 langile ditu. Administrazio Kontseiluan erabakitako EPEaren ondotik, plantillak 960 langile izango ditu.

2010eko plantillak 1165 langile zituen. **Beraz, plantillaren suntsipena azken lau urteotan 173 langilekoa izan da, -%15. Administrazio kontseiluan onartutako lanpostu amooztazioarekin lanpostu suntsiketa 200 langiletik gorakoa izango da. Horri gehitu behar zaio azpikontratetako eta ekoiztetxeetako enplegu-suntsipena.**

### 3.2.2. Baldintza sozio-laboral

Soldata- eta gizarte-murrizketak etengabeak izan dira azken urteotan, eta negoziazio kolektiborik gabe utzi dituzte EITBko langileak.

2010. urtetik hona lan-eskubideen murrizketak ugariak izan dira: 2010eko %5eko soldata-murrizketa, 2011, 2012, 2013 eta 2014 urteetako soldata-izozketak, 2012ko aparteko ordainsariaren murrizketa, eta ezintasun-egoerako prestazioak eta ordezenak gutxitzea... eta ITZARRIren aldeko ekarpenak kentzea eta abar.

Halaber, azpikontratetako eta ekoiztetxeetako langileen baldintza sozio-laboralen murrizketa etengabea izan da 2010. urteaz geroztik.

## 4. EUSKO IRRATIA ETA EPE: PNV, EH-BILDU ETA LAB-EN ARTEKO AKORDIOAK 30 LANPOSTU SUNTSITU DITU EUSKO IRRATIAN

Egoera horretan EITBko zuzendari nagusiak aurreko aldietan sorturiko egoera irregularra normalizatzea proposatu du, Eusko Irratiarentzat EPE bat ateraz. EPE hori Zuzendaritzak aurkeztu dio Administrazio Kontseiluari, eta 30etik gora egitura-postu suntsitzea dakar.

Proposamen hori onartu dute EAJ-PNVko 6 kideek, EH-Bilduko 4ek, LABeko 1ak, Eusko Ikaskuntzako 1ak, Euskaltzaindiko 1ak eta Maite Iturbek —enteko zuzendariak—; 20 kideetatik 14k. (Gogoan izan berregituratze hori aurrera eramateko, beharrezkoa dela Administrazio Kontseiluko kideen 2/3en oniritzia —14 boto—). Bildu eta LAB en baiezko bozkarik gabe ezin izango zuten aurera eraman erabaki hau.

EPE hori onesteak beste murrizketa bat gehitzen dio Eusko Irratiaren egiturako plantillaren aurreko %10eko murrizketari.

ELAk uste du Administrazio Kontseiluak harturiko erabakia oso larria dela, hurrengo arrazoiak direla-eta:

- Administrazio Kontseiluak **estaldura eman dio Urkulluren Gobernuaren konponbideari**, EITB taldean azken urteotan egin diren **kontratazioko irregulartasun larrien ondotik** proposatu duen konponbideari. Onartezina da, egoera horri

amaiera ematearren, 30 lanpostutik gora amortizatu nahi izatea.

- Administrazio Kontseiluak, **bere sostengua eskaini dio Eusko Jaurlaritzari**, azken urteotan zerbitzu publikoetan **murrizketak egiteko eta enplegua suntsitzeko eraman duen politikan**. Enplegu-suntsipen hori euskal irrati-telebista publikoaren kalitatearen kaltetan doa.
- **Erabakia, Kontseiluaren akordio politikoaz haraindi, enpresak alde bakarretik hartutakoa da**. Enteak lanpostuak amortizatzeko azaldu dituen argudioak (labur esanda, aurrekontu-arazoak) Jaurlaritzak Administrazioaren beste ataletarako azaldu dituen bezalakoak dira. Argudio horiek ontzat ematea, gure iritziz, gobernuaren aurrekontu-politika ontzat ematearen parekoa da. Ez da egia, inolaz ere, ezartzen diguten aurrekontu-politikari aurkitu dakioken alternatiba bakarra plantilla-murrizketak onartzea denik.
- LABek Administrazio Kontseiluan eman duen aldeko botoa salatzen dugu. Lehenengo eta behin, ELAk zera argitu nahi du: LABek ordezkariak badu Kontseilu horretan ez da sindikatuen arteko akordio batengatik, Legebiltzarrean alderdi politikoek hala adostu zutelako baizik. Bigarren, LABek, jokatu duen bezala jokaturik, ez du bete bere konpromisoa Irratiaren Zentroen arteko Batzordearekin, batzordekidea izan arren. Izan ere, Batzordeak apirilaren 24an testu bat onetsi zuen, eta honela dio: "Eusko Irratiko Zentroen arteko Batzordeak elkarretaratze baterako deialdia egiten du. Apirilaren 29an izango da, eta Administrazio Kontseiluari gure desadostasuna agertuko diogu onetsi nahi duten plantilla-murrizketa dela-eta". ELAk ez du justifikaziorik ikusten, ikuspegi sindikaletik behintzat, akordio hori egiteko.
- PNVren, EH Bilduren eta LABen akordio hori langileen ordezkari gehienek errebindikazioaren aurka doa. Ordezkariak sindikalarekin adosturiko EPE baten alde mobilizatu gara, eta helburuak argi izan ditugu: lege-prozedurak errespetatzea, euskalduntze-politika sendotzea, eta enplegu-suntsipenik inolaz ere ez ekartzea. Kontseiluaren akordioak ez ditu, inondik inora, betekizun horiek, ELArentzat funtsezkoak, betetzen.

Akordio txarra da, ezin da zuritu enteko euskalduntze-maila hobetzen duela esanez —argudio ulertezina inon bada—. Egia esateko, 30 lanpostu suntsituko dira, eta ez dago aurrekontuetako diru-sailik EITB taldea benetan euskalduntzeko asmoa duen plan bat bideratzeko.

## 5. ONDORIOAK

**1. EITBko Zuzendaritzaren aurrekontu-politikak eta kudeaketak ondorio larriak ekarri ditu euskal irrati-telebistaren lan- eta kalitate-arloetara.** Politika horren ondorioz programazioa aldatu behar izan da pertsonalaren eskasiagatik, zuzeneko programazio-orduak gutxitu... Hori dela-eta, ekoizpenen kalitatea lorrindu da, material eta pertsonal gutxiegi izateagatik, eta kolaboratzaileetan murrizketa izugarria egiteagatik.

**2. EITBk ez ditu betetzen 5/1982 Legearen 3. artikuluan jasotako oinarriko printzipioak.** Entea sortzeko lege horretan aipatzen ziren printzipioak hauek ziren: objektibotasuna, pluraltasuna errespetatzea, informazioak ematean inpartzialtasuna...

**3. Negoziazio kolektiboa blokeatzea eta lan-baldintzetan behera egitea** etengabeko ezaugarriak izan dira azken urteotan. 2010. urtean %5 murriztu ziren soldadak, 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an izoztu, 2012an aparteko ordainsari bat kendu zuten; eta horrekin batera enplegua ere suntsitu da, azken urteotan %15.

**4. Kontratazio-arloan ere irregulartasunak etengabegertatu dira**, gobernuaren aurrekontu-politikak, interes alderdikoiak eta lan-prekarietatea bultzatzeko asmo nabarmenaz.

**5. Administrazio Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren ildoari eutsi dio, murrizketa-politikan**, enplegu-suntsipenean, EITBren kalitatea galtzean... (adibide gisa hor ditugu EPEan suntsituriko 30 lanpostuak eta 3 puntuan aipaturiko murrizketak).

**6. Administrazio Kontseiluaren osaera eta banaketa interes alderdikoen arabera egiten da** eta sindikatu nagusia kanpo utzi dute azken lau legegintzaldietan.

## 6. ELAREN PROPOSAMENAK

### 1.- EITB taldeko zuzendaritzaren informazio-politika

ELAk apustu egiten du balio demokratikoetan oinarrituriko jendartearekin guztiz engaiaturiko EITB plural baten alde. Sindikatu honen iritziaz informazio-politika berraztertze beharra ezin da gehiago atzeratu. Herri honetako pluraltasuna, baita arlo sozialean ere, errespetatzen duen informazioa jasotzeko eskubidea bermatu behar da eta politika ofizialen alternatiba direnak ezagutu eta ulertarazten lagundu behar du.

**2.- Aurrekontuetako diru-sail bat finkatzea**, kalitatezko euskal irrati-telebista publiko bat bermatzeko apustu argi eta ausartaren erakusgarri.

### 3.- Enplegua.

- Administrazio Kontseiluaren akordioa deuseztatzea, eta ordezkariak sindikalarekin adosturiko EPE baten deialdia egitea. Helburuak hurrengo hauek izanik: lege-prozedurak errespetatzea, euskalduntze-politika sendotzea, eta enplegu-suntsipenik inolaz ere ez ekartzea.

- Kanpora ateratako zerbitzuak berreskuratzea, zerbitzu horiek gaur egun ematen dituzten langileen enplegua mantenduz edo, bestela, taldeak zuzenean kontraturiko langileen lan-baldintzekin parekatuz.

- Lan-legeria zorrozki betetzea.

- EITBk berezko dituen zerbitzuak kanpora ez ateratzea.

**4.- Negoziazio kolektiborako eskubidea berreskuratzea, eta azken urteotan hainbeste lorrindu diren lan-baldintzak berronertzeko konpromisoa.**

**5.- Euskalduntze-plana.** Aurrekontuetako diru-sail bat hitzematea, entea euskalduntzeko.

**6.- Begirunea ordezkariak sindikalarekiko, eta partaidetza-baliabideak antolatzea.** Langileen legezko ordezkariarekin negoziatzeari errespetua. Negoziazio hau ezin dezake inola ere ordezkatu administrazio kontseiluaren adabakarreko erabakiak.